

Sukaldeko atea zabaldu dute, baina sukaldean ez dago inor.
Orduan urduritu egin dira apurtxo bat.

Eta orduan esan dio Perutxok Txomintxori:

-Txomin, agian lo egongo dira oraindik.

-Agian bai, Peru.

Eta pasilloan zehar doaz berriz ere, astiro-astiro, anai biak.
Urrunetik begiratuta oso antzekoak dirudite. Baina, oso
urrunetik begiratuta, denok gara oso antzekoak, ezta?

1.Hutsuneak bete:

Sukaldeko _____ zabaldu dute, baina _____ ez dago inor.

Orduan _____ egin dira _____ bat.

Eta orduan esan dio _____ Txomintxori:

-Txomin, _____ lo egongo dira _____.

-Agian bai, _____.

Eta _____ zehar doaz berriz ere, _____, anai biak.

_____ begiratuta oso _____ dirudite. Baina, oso urrunetik

_____, denok gara oso antzekoak, _____?

2. Erantzun zuzena aukeratu:

Nongo atea zabaldu dute?

- a) Logelako atea zabaldu dute.
- b) Egongelako atea zabaldu dute.
- c) Sukaldeko atea zabaldu dute.

Nor dago sukaldean?

- a) Ama eta Aita daude sukaldean.
- b) Ez dago inor sukaldean.
- c) Beraien lagunak daude sukaldean.

Nola jarri dira inor ez dagoela ikustean?

- a) Urduritu egin dira apurtxo bat.
- b) Pozik jarri dira.
- c) Negar egin dute.

Ze uste dute anai biek?

- a) Gurasoak kalean egongo direla.
- b) Gurasoak lo egongo direla oraindik.
- c) Gurasoak atarian egongo direla.

3. Egia ala gezurra den X batekin jarri:

	EGIA	GEZURRA
Sukaldeko atea zabaldu dute.		
Sukaldean Aitor dago.		
Urduritu egin dira apurtxo bat.		
Agian etxeko atarian daudela uste dute.		
Pasilloan zehar astiro-astiro doaz anai biak.		
Urrunetik begiratuta oso desberdinak dirudite.		